

HIZKELANVIII
*Lanbide Heziketan eta lanean euskara
sustatzeko ekimena
Eskola hiztun bila LHn*



Hizkelan Jardunaldia

Lanbide Heziketa eta lana euskaraz jardunaldia



9:00 HARRERA

9:15 SARRERA

Jorge Mancisidor Dorronsoro, Goierri Eskolako Zuzendaria.

Unai Andueza Iraeta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko Zuzendaria.

Nicolas Sagarzazu Alzua, Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailburuordetzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaria.

Ainitze Blanco Etxaleku, Lanekiren Presidentea.

9:40 EUSKARAZKO MATERIALAK

Informatika eta komunikazioa bideotutorialak, Ione Etxaniz.

Hidraulika bideo pilotua, Xabier Astigarraga eta Xabier Bastida.

10:00 HIZKUNTZA NORMALKUNTZA

Eraldaketa digitala normalizazioaren ikuspegitik, Mikel Alberdi.

10:20 IKASLEEN IBILBIDE PROFESIONALA

Lanbide Heziketan euskaraz hezi, bideoa.

Ikasleak birtualki lanean, Goierriko ikasleak.

10:40 AHOTS BIDEZKO AUTOMATISMOAK, Joseba Zabala Elorza.

10:50 Monologia eta Kafea

11:30 ADIMEN ARTIFIZIALA

Chat GPT hezkuntzan. Amaia Arroyo Sagasta, Huhezi.

Lanbide Heziketa eta adimen artifiziala. Ion Hernandez, Tknika

Teknologia eta tresnak euskaraz. Iker Manterola, Elhuyar.

12:30 LANBIDE HEZIKETA DUALA EUSKARAZ

LH Duala euskaraz ziurtagiriak, bideoa.

LH Duala Gipuzkoan euskaraz. Garbiñe Mendizabal Mendizabal, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Foru Zuzendaria.

12:45 Monologia

13:00 OROIGARRIA ETA AGURRA

Aurkezlea: Oihana Maritorea / Monologista: Bittor Rodriguez



HIZKELANVIII
*Lanbide Heziketan eta lanean euskara
sustatzeko ekimena
Eskola hitun bila LHn*



Urtero Lanbide Heziketa eta lan mundua euskararekin eta hizkuntza kudeaketarekin lotutako Hizkela jardunaldia egiten da. **Aurtengoa Hizkela VIII. jardunaldia izango da.** Landuko diren gaietan azpimarragarrienak hauek ditugu: ikastetxeetako eta erakundeetako praktika onak, Lanbide Heziketa eta Adimen Artifiziala eta Lanbide Heziketa Duala euskaraz egitasmoak. Hauek eta Lanbide Heziketa eta lan munduari dagozkion beste hainbat kontu entzuteko aukera izango dugu. Izan ere, aurtengo leloa “Euskaratik euskarara heziketatik lanbidera!” izango baita.

Aurtengo ekimena Gipuzkoako Foru Aldundiaren LH Duala euskaraz egitasmoaren baitan kokatzen da. Unai Andueza Iraeta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko Zuzendaria izango da sarreran. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailburuordetzako Plangintza eta Antolaketako Zuzendaria den Nicolas Sagarzazu Alzua, Goierri eskolako Zuzendaria den Jorge Mancisidor Dorronsoro eta Laneki elkartearen Presidente den Ainitze Blanco Etxaleku ere izango ditugu jardunaldiaren sarreran.

Ekitaldian Lanbide Heziketako eragileak (zuzendaritzako kideak, irakasleak, HNAT-ak, LH Dual arduradunak, tutoreak...), erakundeetako, enpresetako, hizkuntza zerbitzuetako,... 120 eragile eta protagonista bildu izan dira. Hizkela jardunaldia Lanbide Heziketa, enpresa, elkarte eta erakundeen zubi lanerako ekitaldi garrantzitsua da. **Elkargune izateaz gain, praktika onak eta ezagutzak partekatzeko leku ere bada.** Honez gain, Lanbide Heziketan euskara bultzatu duen enpresa zein norbanakoei egindako ibilbidea errekonozitzea helburu duen sari banaketa egingo da, **Laneki oroigarriak emango direlarik.**

NORENTZAT

Euskaraz lanean ari diren Lanbide Heziketako ikastetxeetako, erakundetako eta lantokietako kideentzat. Hain zuzen ere, Lanbide Heziketako ikastetxeetako Hizkuntza Normalkuntza teknikari eta zuzendarientzat, Dualeko arduradunentzat, Hizkuntza Normalkuntza planetan murgildutako enpresa, erakunde eta elkarteetako arduradunentzat, eta orokorrean euskara eragile, teknikari eta besterentzat.

HELBURUA

Lanbide Heziketa eta lan mundua euskalduntzean dauden egitasmoak ezagutzea, ideia berri eta praktika onak partekatzea, eta euskalduntze bidea errazteko baliabideen berri izatea, besteak beste.

HARREMANETARAKO

Olatz Imaz Mendizabal (kudeatzailea) / Ainitze Blanco Etxaleku (Lanekiko presidentea)

e-maila: jakinbai@jakinbai.eus /Tel. zkia.: 688 758 569